


**ROGER ETCHEGARAY EUSKAL HERRIAN**

Urtero egin ohi duen bezala, Sabino Arana Fundazioak gizarte arlo desberdinetako pertsona eta erakundeak saritu zituen urtarrilaren 31n Euskalduna Jauregian ospatutako ekitaldian. Aurtengo ekitaldia berezia zen, sariketa honek 20 urte betetzen zituelako eta horretarako urte hauetan guztietan omendutakoak gonbidatu zituztelako.

2008ko sarituetakoa bat Roger Etchegaray kardinal euskalduna dugu. 1922ko irailaren 25ean jaio zen Roger Etchegaray Ezpetalako “Txoko Maitea” izena daraman etxean. Gaztetatik sumatu zuen apaiz izateko bokazioa eta filosofia eta teologia-ko ikasketak egin zituen Baionako Seminarioan eta Erromako Gregoriana unibertsitatean. 1947an apaiztu zen. Apaiz gaztea izanik, hainbat parrokiatan ebangelioaren zerbitzari zintzo izan zen. Hori izango da bere bizitza guztian presente izan duen ardatza. Egindako lan guztiak, bere gain jasotako ardurak guztiak apaltasunez hartu eta bukaeraraino eramatea. Marseillako artzapezpiku zelarrik, Joan Paulo II.ak Erromara hots egin zion Kuriako Batzorde garrantzitsu baten buru izatera: Justizia eta Bakea deritzon Batzordearen buru izatera. Beste hitzetan esanda, Aita Santuaren atzerri ministro baten lanak betetzera. Arlo honetan eman ditu urte asko Ezpeletako semeak. Munduan gertatu diren gerrate eta gatazka nagusienetan bakearen mezularia izan da. Batzuk aipatzeko: Vietnam, Mo-



zambique, Ruanda, Cuba, Chiapaz, Libano, Irak, China,... Denotan elkarrizketa eta elkar ulertzea lortzeko eginahalak egin ditu. Batzuetan lortu du gatazkaren bi parteak elkartzea. Beste batzuetan, aldiz, saikera hutsean gelditu da, baina berak esan ohi duen bezala “bakea lortzeko saiakera guztiak probatu behar dira”.

Sarreran aipatu dugun bezala, ekitaldi nagusia Euskalduna Jauregian ospatu zen. Omendu bakoitzak beste urteetan omendutako baten eskutik jaso zuen saria. Kasu honetan, Julian Retegi pilotaria izan zen kardinalari saria eman ziona. Iru-di ez ohikoa, bi gizonak “kantxa” oso desberdinetan makina bat izerdi botatakoak.

Bere hitzaldian kardinalak 86 urteetan bizi izandako esperimentziak jasotzea ez dela erraza aipatu zuen. Munduaren bihotzaren taupadak gertu sentitu eta bizi izan ditu. Bakearen alde lan egin ostean hauxe uste du: “bakea lortzeko, bake giro bat sortu behar da”. Hau da, ezin daiteke benetako bakea lortu mahai azpian beste interes batzuk ezkututzen direnean. Bakea



ez da sentimendu hutsa edo ideia onen multzoa. “Ez da aski bakeari egun on esatea, gerrari agur esateko”. Bakea artea da, lantzen jakin behar da.

Arte munduan dabilenak ondo daki lan bat bukatzeko zenbat saio edo ahalegin behar den. Ez da iruzurrik egin behar, lege edo arau batzuk jarraitu behar dira. Roger Etchegaray bakearen artista handi bihurtu da, inoiz iruzurrik egin ez duelako. “Kristoren Ebanjelioaren lekuko bizi izatea bilatu dut eta horrek lagundu dit beti fede indibidualistaren estrabismo eta miopiak zuzentzen. Honela –kristau ororen artea da hau– bizitzan zehar neure eta bosgarren ebanjelioa idazten aurkitu dut neure burua..., egi-le-eskubide guztiak Espiritu Santuari uzten dizkiodala”.

Bakearen alde lan egin duenean norbaiten irudia izan badu aurrean, hori Kritorena izan da:

Axola duena ez Kristo iragartzea soilik, egiazko Kristo iragartzea baizik; hau da, ez hit-parade-ko ez eta berotegian gordetako Kristo ere, Kristo Jainko eta gizon egiazkoa baizik, apostoluen Kristo, Txiki eta xumeen Kristo, neure euskal azentutik hain hurbil den galilear azentuan ezagun egiten zaidan Kristo, Felipe apostoluari bezala esaten didana: ‘Roger, ni ikusi nauenak Aita ikusi du’. Iragarpenak kristau-bizitzaren galderari, “zergatik zara kristau” galderari, eratzuten dionean, orduan-txe sentitu naiz ni inoiz baino Kristoren lekuko leialago.

Urte hauetan guztietan jakin du Roger Etchegaray kardinalak kristau bizitza ulertzen eta bizitzen. Bake gizona izan da da bai, baina lehenik kristau zintzoa. Jesusek erakutsitako bizitza-proiektua bizi eta besteei erakutsiz pasatu du bere bizitza. Bere hitzaldiko azken hitzak ongi definitzen du Espeletako seme hau:

“Nork ez du maite bizia? Nork ez du nahi luzaroan bizi eta zoriontsu izan?. Alde gaitzetik, egin on dena, bila bakea eta jarrai haren bidetik” (Salmo 33). Bakea geure esku dugu.

*Jon Korta*